



### 113. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2017ko irailaren 28an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Oier Korta Esnal jna.

Bertaratutako zinegotziak:

M. Cruz Alvarez Aparicio and.  
Gotzon Embil Unanue jna.  
Jon Joseba Iraola Rezola jna.  
Cristina Vicente Iciar and.  
Ane Arregi Urbietta and.  
Alex Oliden Antia jna.  
Arritokieta Iribar Egaña and.  
Josu Arrieta Arriola jna.  
Nerea Eizagirre Telleria and.  
Ione Muguerza Egaña and.  
Arritokieta Marañon Basarte and.

Ez bertaratuak: Joseba Josu Azpiazu Azkarra jna.

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre



## EGUNEKO AZTERGAIAK

### **1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (112. zbkia – 2017.07.27)**

Onartutzat ematen da

### **2.- OGASUNA.-**

#### **2.1.- PROPOSAMENA:**

#### **2017ko ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA PARTZIALA – TAOKO TASAK**

Alkateak erabaki du puntu hau gaizerrendatik ateratzea, batzordean ez delako landu eta nahiz iraileko pleno honetan onartu, bere onarpena 30 eguneko agerraldi publikoa edukiko luke eta azkenean urte bukaeran kokatuko ginateke.

-----

### **3.- HIRIGINTZA.-**

#### **3.1.- PROPOSAMENA:**

#### **SANTIAGO HONDARTZAKO HITZARMENAREN BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.**

**ALKATEAREN PROPOSAMENA, ZUMAIKO ETA GETARIKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-  
HITZARMENA SANTIAGO HONDARTZAREN KUDEAKETARI BURUZKOA.**

## AURREKARIAK

1.- Getariako Udaleko Osoko Bilkurak 2017ko uztailaren 26ko ohiko batzarraldian eta Zumaia Udalekoak 2017ko uztailaren 27ko ohiko batzarraldian, Santiago hondartza eremuari buruzko elkarlankidetzak-hitzarmena onartu dute, behin-behineko izaerarekin. 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 83. Artikuluak xedatutakoari jarraiki hogeitaz eguneko agerraldi publikoan egon da interesatuek alegazioak egin zituzten.

2.- Jendaurreko epean Maria Bilbao Sandek alegazioa aurkeztu du.

3.- Udal-arkitektoaren txosten teknikoak zein Idazkariaren txosten juridikoak egindako alegazioak ezesteko proposamena egiten dute.

4.- 2017ko irailaren 21eko batzordean gaia azaldu zen.

## PROPOSAMENA



Ondorioz, ondorengo PROPOSAMENA egiten zaio Osoko Bilkurari, erabakiak gehiengo osoa beharko duelarik:

- 1.- Maria Bilbao Sande andereak egindako alegazioa ezetsi.
- 2.- Santiago hondartzako eremuari buruzko Getariako Udalaren eta Zumaia Udalaren arteko elkar lankidetzaren hitzarmena behin betiko izaerarekin onartzea.
- 3.- Exekutatu den Santiagoko hondartzaren Ingurumen Berreskurapenaren proiektuaren ondotik eratorritako kudeaketarako emakida hartzea, Estatuko Administrazio Orokorra emandakoa, hain zuzen ere.
- 4.- Aipatu proiektuak aurreikusten dituen saneamendu obrak gauzatzea eta horretarako beharrezko diren finantza-baliabideak onartzea.
- 5.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena eta hori egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.
- 6.- Erabaki hau jakinaraztea eta argitaratzea.

Alkateak esan du uztaileko plenora ekarri zela hitzarmena Getaria eta Zumaiaren artekoa, orduan behin behineko onarpena eman zitzaion, agerraldi publikoa egon da eta alegazio bat aurkeztu du Maria Bilbao andereak; horren inguruan txosten tekniko bat dago, ez da ontzat hartzen aurkeztutako helegite hori eta hirigintzako batzordean tratatuta, besterik gabe bozkatzera pasa dira,

## **ERABAKI ZATIA**

**Votos a favor: 12 (6 EAJ-PNV; 5 EH BILDU; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 0**

**ERABAKIA:** 1.- Maria Bilbao Sande andereak egindako alegazioa ezetsi.

2.- Santiago hondartzako eremuari buruzko Getariako Udalaren eta Zumaia Udalaren arteko elkar lankidetzaren hitzarmena behin betiko izaerarekin onartzea.

3.- Exekutatu den Santiagoko hondartzaren Ingurumen Berreskurapenaren proiektuaren ondotik eratorritako kudeaketarako emakida hartzea, Estatuko Administrazio Orokorra emandakoa, hain zuzen ere.

4.- Aipatu proiektuak aurreikusten dituen saneamendu obrak gauzatzea eta horretarako beharrezko diren finantza-baliabideak onartzea.



5.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena eta hori egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

6.- Erabaki hau jakinaraztea eta argitaratzea.

-----

#### **4.- PERTSONALA.-**

##### **4.1.- IRIZPENA:**

##### **4.1.1.- ZUMAIAKO UDALEKO ETA KIROL PATRONATUKO LANGILEEN ORDAINSARIEN %1EKO IGOERAREN ONARPENA EMATEA BIDEZKO BADA.-**

**2017KO IRAILAREN 20KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA ALDE BATETIK, 2017RAKO ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAREN 3/2017 LEGEA, EKAINAREN 27KOAK ARAUTUTAKOAREKIN BAT, ZUMAIAKO UDALEKO ETA ZUMAIAKO KIROL PATRONATUKO LANGILEEN ORDAINSARIEN 1%EKO IGOERAREN ONARPENAREN INGURUKOA ETA BESTETIK, ZUMAIAKO UDALEKO INFORMATIKA TEKNIKARI LAGUNTZAILEA ETA KONTU HARTZAILTZAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA LANPOSTUEN BALORAZIO PROZESUAREN EMAITZEN APLIKAZIOAREN ONARPENA. ONDORIOZ, ZUMAIAKO UDALEKO ETA ZUMAIAKO KIROL PATRONATUKO 2017KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETAREN ONARPENA.**

#### **AURREKARIAK**

1.- 2017ko ekainaren 28an, Estatuko Aldizkari Ofizialean, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 3/2017 Legea, ekainaren 27koa, argitaratu zen.

2.- Aipatutako Legearen III Tituluaren 18. artikuluen 2. puntuan, ondorengo arautzen da:

*"En el año 2017, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 1 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2016, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo".*

3.- III Tituluaren 5 puntuan zehazten dira, %1 igoeraren aplikazioaren ondorioz, langile publikoen ordainsari gordinaren soldadari eta hirurtekoari dagozkien kopuru berriak.

4.- Honekin batera, 22. artikulua zehazten ditu, Estatuko funtzionarioen ordainsarien lanpostu-mailako osagarrien (CD) mailen kopuru berriak %1eko igoera aplikatu ondoren. Indarrean dagoen legediak arautzen duenaren arabera, toki-administrazioetako funtzionarioen kasuan ere, lanpostu-mailako osagarrien (CD) mailen kopuru horiek aplikatu behar dira. Urteko ordainsari gordinaren berariazko osagarriari (CE) dagokionez, honek ere, %1eko igoera izan behar du lanpostu bakoitzaren urteko ordainsari gordinak bere osotasunean %1eko igoera izateko.

5.- Guzti hori kontuan izanik, 2017ko urtarrila 1eko eragin datatik egokituko dira Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko langileen ordainsarien kontzeptu salarialak eta ondorioz, urteko ordainsari gordinak.



**6.-** Bestetik, %1eko igoera aplikatzerakoan, kontzeptu salarialen egokitzapenean, kontuan izan behar da 3/2017 Legearen 2. Xedapen Iragankorrean araututakoa gehigarri pertsonal iragankorren inguruan.

Zumaia Udalean, gehigarri pertsonala kulturako atezainetako batek du eta Zumaia Kirol Patronatuaren kasuan, kirolerako teknikariak.

**7.-** 2017rako Zumaia Udaleko aurrekontuen I. Kapituluaren, %1eko ordainsarien igoerari dagokion 30563,42€ko partida ekonomikoa jaso zen. Kirol Patronatuaren kasuan, 2017ko pertsonaleko aurrekontuetan ez zen partida zehatzik jaso ordainsarien %1eko igoeraren inguruan baina pertsonaleko aurrekontuak zehazteko egin ziren kalkuluak aztertutik, langileen ordainsarien %1eko igoera estaltzeko nahiko kreditu dagoela ondorioztatuta da.

**8.-** Bestetik, baloratzeko pendiente zeuden lanpostuetatik, 2017an, LKS S. Coop. erakundeari esleitutako prozesuaren bitartez, informatika teknikari laguntzailea eta kontu hartzailetzako erdi mailako teknikaria lanpostuak baloratu dira.

LKS erakundeak aurkeztutako proposamena kontuan izanik, prozesuan, hasiera baten, balorazio sistema ezagutzen duten bi langile ordezkariak eta udaleko bi teknikariak osatutako taldean aurkeztu ziren emaitzak. Taldearen ekarpenak kontuan izanik, emaitzak langileei aurkeztu zitzaizkien eta alegazio epea ireki zen.

Kontu hartzailetzako teknikariaren lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzen duen langileak alegazioa aurkeztu zuen proposatutako lanpostuaren balorazioaren emaitzaren aurrean.

Alegazioan jasotakoak LKS erakundearen aldetik aztertu ondoren, bertan jasotakoa partzialki onartzea erabaki du eta horren ondorioz, zenbait faktoreen balorazioaren aldaketak eman dira.

Balorazio berriaren ondorio ekonomikoak talde teknikoari eta langileari jakinarazi zaizkie.

Bi lanpostuen balorazioaren emaitzei dagokienez, kontu hartzailetzako erdi mailako teknikariaren lanpostuaren kasuan, **lanpostu-mailako osagarriari dagokionez, 23 maila eman du eta berariazko-osagarriari dagokion tramo orokorraren 10 maila.** Informatika teknikari laguntzailea lanpostuaren balorazioak berriz, alde batetik, **TALDEA C1-etik B-ra** pasatzea proposatu da eta bestetik, **lanpostu-mailako osagarriaren maila 16tik 22ra pasatzea eta berariazko-osagarriaren tramo 5etik 9ra pasatzea.**

Langileei jakinarazpenak egin ondoren, prozesua amaitutzat eman da eta bertako ondorio ekonomikoaren onarpena Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki da.

**9.-** Lanpostuen balorazioaren emaitzen aplikazioaren eragin datari dagokionez, indarrean dagoen legediak aukera ematen duela ikusirik, proposatzen da, balorazioaren emaitza berriak urtarilaren 1etik aplikatzea. Kontuan izan behar da lanpostuen balorazioaren ondorioz sortu zitezkeen ordainsarien igoerak estaltzeko, udaleko 2017rako aurrekontuaren I. Kapituluaren 20000€-ko partida ekonomikoa jaso zela, nahikoa dena balorazio prozesuaren ondorioz sortu diren ordainsarien hobekuntza ekonomikoari aipatutako eragin datatik aurre egiteko.

**10.** Azkenik, alde batetik, %1eko ordainsarien igoeraren aplikazioak eta bestetik, informatika teknikari-laguntzailea eta kontu hartzailetzako erdi-mailako teknikaria lanpostuen balorazio prozesuaren emaitzen aplikazioak, Zumaia Udaleko 2017ko



Langileen Lanpostuen Zerrendan, lanpostuen ezaugarri ekonomikoen egokitzapena egitea dakar. Honekin batera, ordainsarien %1eko igoeraren eraginez, baita, Kirol Patronatuaren 2017ko Langileen Lanpostuen Zerrendaren egokitzapena ere.

### **IRIZPENA**

Ondorioz, 2017ko irailaren 20ko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde:

Marikruz Alvarez (EAJ)

Alex Oliden (EH-Bildu)

Joseba Josu Azpiazu (EH-Bildu)

**ALDEKO** irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- 2017ko ekainaren 28ko 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorraren 3/2017 Legeak arautzen duena kontuan izanik, Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko langileen ordainsariei %1eko igoera aplikatzea.

2.- 8. Puntuari aipatu diren Zumaia Udaleko kontu hartzaitzako erdi mailako teknikariaren eta informatikako teknikari laguntzailearen lanpostuen balorazioaren ondorio ekonomikoak onartzea.

3.- 1. eta 2. puntuari aipatutakoan ondorioz, ondoren erantzen diren Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko 2017ko Langileen Lanpostuen Zerrenden aldaketari onarpena ematea.

4.- Zumaia Udaleko kontu hartzaitzako erdi mailako teknikariaren eta informatikako teknikari laguntzaile lanpostuen balorazioaren eragin ekonomikoen aplikazioari dagokion Zumaia Udaleko 2017ko Langileen Zerrendaren aldaketaren onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik, hamabost lanegunetan, jendaurrean jartzea. Egun hauetan interesatuak zerrenda ikusi eta Udal batzaren aurrean erreklamazioak jartzeko aukera izango dute. Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Langileen Lanpostu Zerrenda behin betiko onartuko da.

5.- 2017ko Langileen Lanpostuen Zerrenden aldaketak behin betiko onartzen direnean, Zumaia Udaleko kontu hartzaitzako erdi mailako teknikariaren eta informatikako teknikari laguntzailearen lanpostuen balorazioak Zumaia Udaleko 2017ko Langileen Lanpostuen Zerrendan eragindako aldaketa soilik argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.



**Zumaia Udala**

2017IAKU0005-008-005

Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV) esan du ekainaren 28an publikatu zen 2017rako Estatuko aurrekontu orokorraren 2017 legea. Hor arautzen direla langile publikoen ordainsariak nola izango diren, eta langile publikoen ordainsari gordinaren soldadari eta hirurtekoari dagozkien kopuru berriak arautzen direla.

Guzti hori kontuan izanik 2017ko urtarrila 1eko eragin datarekin egokituko direla Zumaia udaleko eta Zumaia kirol patronatuko langileen ordainsarien kontzeptu salarrialak eta ondorioz urteko ordainsari gordina.

Gero bestetik baloratzeko pendiente zeuden lanpostuetatik 2017an LKS erakundeari esleitutako prozesuaren bitartez informatika teknikari laguntzailea eta kontu-hartzailetzako erdi-mailako teknikariaren lanpostuen balorazioa egin da.

Balorazio hauen emaitzak batzordean azaldu zirela eta aplikazioaren eragin datari dagokionez, indarrean dagoen legediak aukera ematen duela ikusirik proposatzen da balorazioaren emaitza berriak urtarrilaren 1etik aplikatzea.

Azkenik %1eko ordainsarien igoeraren aplikazioak eta bestetik informatika teknikari laguntzailea eta kontu-hartzailetzako erdi-mailako teknikariaren lanpostuen balorazio prozesuaren emaitzen aplikazioak Zumaia udaleko 2017ko langileen lanpostuen zerrendan lanpostuen ezaugarri ekonomikoen egokitzapena egitea dakar eta honekin batera ordainsarien %1eko igoeraren eraginez baita kirol patronatuaren 2017ko langileen lanpostuen zerrendaren egokitzapena ere.

Orduan proposamena da hiru gauza horiek:

%1eko igoeraren onarpena

Bi lanpostuen balorazioaren onarpena eta azkenik

Ondorioz RPT-aren aldaketaren onarpena

## **ERABAKI ZATIA**

**Votos a favor: 12 (6 EAJ-PNV; 5 EH BILDU; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 0**

**ERABAKIA:** Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko langileen ordainsariei %1eko igoera onartu da.

-----

**4.1.2.- INFORMATIKA TEKNIKARI LAGUNTZAILEA ETA KONTU-HARTZAILETZAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUEN BALORAZIO PROZESUAREN EMAITZEN APLIKAZIOAREN ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-**



**ERABAKI ZATIA**

**Votos a favor: 12 (6 EAJ-PNV; 5 EH BILDU; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 0**

**ERABAKIA:** 1.-Zumaia Udaleko kontu hartzailetzako erdi mailako teknikariaren eta informatikako teknikari laguntzailearen lanpostuen balorazioaren ondorio ekonomikoak onartu dira.

-----

**4.1.3.- ZUMAIKO UDALEKO 2017KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**ERABAKI ZATIA**

**Votos a favor: 12 (6 EAJ-PNV; 5 EH BILDU; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 0**

**ERABAKIA:** 1.-Zumaia Udaleko eta Zumaia Kirol Patronatuko 2017ko Langileen Lanpostuen Zerrenden aldaketa onartu da eta iragarkia GAOn argitaratzea.-

-----

**5.- PARTAIDETZA, GAZTERIA, EUSKARA, HEZKUNTZA ETA EKONOMIA SUSTAPENA.-**

**5.1.- IRIZPENA:**

**5.1.1.- ETXEBIZITZEN ALOKAIRURAKO DIRU LAGUNTZEN ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.**





**2017KO IRAILAREN 25EKO GAZTERIA ETA PARTE-HARTZE BATZORDEAREN IRIZPENA ONARTZEKO ZUMAIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA**

**AURREKARIAK**

**1.-** 2017 urterako Udal aurrekontuan onartu zen diru-partida bat gazteen emantzipazioa sustatzeko. Udalaren plan estrategikoan jasota dagoen bezala, Udalak duen helburuetako bat da gazteei laguntzea emantzipazio prozesuan.

**2.-** Ikusirik inongo ordenantzarik ez dagoela diru-laguntza horiek arautzeko, Udal Gobernu taldea hasi zen urtearen hasieran gaia lantzen, eta ekainaren 2ko Gazteria eta Parte-hartze batzordean, Alkateak zirriborroaren aurkezpena egin zuen.

**3.-** Ikusirik 2017ko irailaren 14 eta 19ko Gazteria eta Parte-hartze batzordeetan aurkeztu dela zein izango den araudia, honako helburuak izanda:

- 18 eta 35 urte bitarteko (35ekoak barne) adina duten gazteei diru-laguntza ematea. Bereziki, gazteei laguntzea beren emantzipazio bidean eta helduen mundura sartzeko prozesuan.
- Modu orokorrean, Zumaia herrian etxebizitzak alokairua sustatzea.
- Alokatzeko den etxea partekatzea.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2017ko irailaren 25eko Gazteria eta Parte-hartze Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Oier Korta (EAJ)  
Cristina Vicente (EAJ)

Abstentzioa: Nerea Eizagirre (EH Bildu)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1. Zumaia herrian, etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko duen ordenantzari hasierako onarpena ematea.



2. Espedientea jendaurrean jartzea 30 egunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako epean, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da 7/1985 Legeko 49 artikulua araber.

Alkateak hitzez hitz ondorengoa adierazi du:

“Dakizuen bezala 2017ko aurrekontuetan sortu zen gazteentzako alokairu programa eta uztailan Bilduk ekarri zuen bere proposamena alokairurako eta udal gobernua lantzen ari zen bere programa alokairurako, gazteentzako eta uztailako pleno horretan Bilduk egin zuen aurkezpena eta udal gobernua irailean landu du hiru batzordeetan oker ez baldin banago aurkeztu dugun alokairu beka programa.

Gaur hona ekartzen dugun programa gustatuko litzaidake azpimarratzea indarrean abenduan sartu beharrean, 2017ko urtarrilaren 1etik eskaera egin daitekeela alokairurako, ez? edonork

Orduan puntu hori iruditzen zait azpimarratu beharrekoa dela eta gero bestetik udal gobernua gaur hona ekartzen duen programa hau, programa oso interesgarria iruditzen zaigu dela gazteentzako, ezberdina da, Euskal Erkidegoan ezagutzen dugun programa ikusten badugu eta horren inguruan aldaketak bi dira, ez? batik bat

Batetik, partekatzea bultzatzen dela programa honen bitartez eta partekatzeak pizgarri bat duela ez? %10eko pizgarria ez?

Bestetik gainontzeko udal herrietan %50eko muga jartzen den bezala alokairu, etxearen... alokairurako programa honen bitartez eta partekatzearen bitartez %75era iritsi daiteke eta horri %75 horri gaineratik beste pizgarri bat jartzen diogu ez? eta pizgarri hori da gazterien formakuntza bultzada bat edo baita ere nahi dugun eman programa honen bitartez ez?

Orduan 150 ordu baino gehiago egiten den edozein formakuntza, edozein modulo, ikasketa, unibertsitaroa izan edo dena delakoa jartzen den muga bakarra da ikasketa hori 150 ordu urtean edukitzea, horrek izango du hilean 10€ko... gehitu egingo zitzaien ez? %75 horri ez?

Eta gero bestetik, udaran Bilduk aurkeztu zuen programa horrekin alderatuta ere bai, Bilduk hona ekarri zuen programa horretan 700€ko alokairua jartzen zen minimo bezala edo maximo bezala, barkatu, eta gure kasuan 600 € horiek dira, ez?

600 € horiek oinarria dute egia esan eta urte hasieratik gaude gai honi buelta asko ematen udal gobernua, gure proposamena izan zelako aurrekontuetan eta gai interesgarria ikusi dugulako gazteengan emantzipazioa bultzatzeko ez?

Horren inguruan baita ere aipatzekoa partekatzeak %10eko hori izango duela eta 600 €ko hori pixkat dator agentzi inmobiliariokoekin egin dugun bilera bat baino gehiago eta iragarkietan eskaintza handia ikusten ez baldin bada ere alokairurako ezkutuko alokairu bat, ezkutuko pixkat itsusi geratzen da, baina iragartzen ez den merkatu bat badagoela Zumaian ez? eta merkatu horretan etxejabeak gehiago bilatzen duena zenbatetik alokatu beharrean zeini alokatzen zaion etxebizitza hori ez?



## Zumaia Udala

2017IAKU0005-008-005

Eta badaudela alokairuak prezio horretan eta gutxiago, gehiago eta lehen urtea izanik 600€ko mugari hori jarri dugu eta ikusiko dugu gero errealitateak non kokatzen gaitun ez?

Eta pixkat hori... 600€ko hori eta gero baita ere 10 urteko errolda eskatzen dela Zumaian erroldatua egon izana, ez?

Bueno 10 urteko errolda hau baita ere helburua da Zumaia kostako herri bat da, 2008. urtetik hona 9.000 pertsonatik 10.000 pertsonetara pasatu da, hazkunde handia da eta ez dago dudarik alokairuko prezioak eta etxebizitzak garestiak izan arren ba... Zumaia herri erakargarria dela ez? erakargarria izateak egiten duena da alokairuko prezioak eta etxebizitza prezioak igotzea, ez?

Horregatik, programa honen helburua da Zumaiarrak diren pertsona horiei zuzentzea, ez?

Eta inguruko udal herrietako gazteek beraien udal herrietan alokatzea etxebizitza ez? diren tokikoak, ez?

Pixkat ildo horretatik, hortik dator 10 urteko errolda minimo hori ez?

Eta besterik ez, pixkat hori zen azalpena gure programarena eta hitza daukate gainontzeko alderdiak gai honen inguruan, programaren inguruan,"

Arritxu Iribarrek (EH BILDU) hitzez hitz:

"Aurrena esan ongi etorria neurriari, ondo hartzen dugu, ezer ezetik aurrera pauso bat da, baina gure ustez ez da nahikoa eta behin eta berriz hitz egin dugu honetaz eta hori behin eta berriz adierazi dugu.

Guk, uztailean plenora ekarri arren ekainean erregistratu genuen gure lan proposamena udalean, plenoan abuzturako lanerako deia egin zitzaigun eta hurrengo deia irailaren 14ean jaso genuen, irailaren 14ean aurkeztutako testuan aurkezpen hutsa izan zen eta benetan aztertzeko irailaren 19ko batzordea izan zen hautatua eta han aurkeztutako testuan bai... eta gero aldaketa batzuekin hona etorri den edo ekarri duzuen testua edo ordenantzan ikusten dugu lehen hasieran esan dugun bezala oinarri inportanteak badaudela baina ez nahikoak eta guk lehengoari eusten diogu.

Uste dugu neurri ona badela baina neurri murriztailea dela, zeren, gazteen 18-35 urte bitartekoentzat bakarrik dago zuzenduta eta gazteak eta hor ez da aukerarik izan hori aldatzeko, batzordeetan bai hitz egin da baina dauden puntuak argitzeko gehiago baina ez da ezer aldatzeko, esan nahi dut oinarriko puntuak aldatzeko borondaterik izan adinarena, bat, gure filosofiarekin ez dator bat, gurea askoz ere zabalagoa delako Zumaiar guztientzat proposatzen genuen diru kopuruarena, egia da aurrekontuetan hori dagoela hartuta eta guk gehiago proposatzen dugula, baina zenbat gehiago? 70.000€ gehiago, ez gehiago, orain onartuta dagoena baino.

Beste puntu bat, 10 urteko erroldarena, guretzat gehitxo eta guk lehengoari eusten diogu 2 urteko erroldari.

600 € egia da eta arrazoia duzu, testuan orain dagoenean ere hala daukazue jasota baina gaur bertan, adibidez, oferta publikoak gaur bertan eh? gaur begiratuta interneten Zumaia-koak ikusi eta 750 eskatzen da Mari kalean, 700.

Eta 750 San José kalean eh? hori gaur bertan.. oferta publikoan.

Testuan? Oraindik ere zalantzekin jarraitzen dugu, badaude puntu batzuek ez zaizkigunak argigarriak iruditzen, adibidez, ahaidekotasuna eta odolkidetasuna



**Zumaia Udala**

2017IAKU0005-008-005

bigarren maila arte juridikoki uste dut garbi gelditu behar duela barne ala kanpo bigarren odolkidetasun maila hori ez dago jasota. Lehenengo, hitzarmena hasterakoan konkurrentziazko legearen erregimenean ez da neurri unibertsal bat adierazten horrek, adierazten duen bezala. Bigarren orrialdean ez dago garbi jasota 18 eta 35 urte bitartekoak bizi diren etxe batean hor 40 urteko norbait bizi baldin bada, besteek eskatu dezaketen. Testua nahasgarria da eta hori bai gertatu zitzaigun hilaren 19ko bileran zuen filosofia eta estuan jasotzen zena kontraesanetan heltzen zen, zeren batzuetan ez zegoen garbi jasota testuan zuek nahi zenutena adierazi. Beraz, honen guztiengatik guk kontra ez dugu egingo baina ez diogu ere aldeko bozka emango."

Arritxu Marañonek (ES-SV) hitzez hitz:

"Sí, esta medida que trae hoy el gobierno municipal pero nace de los presupuesto del año 2017 a través de una enmienda que se aprobó en el pleno es lo que ha traído hoy aquí, enmienda que presentó Bildu y que fue apoyada por el Partido Socialista.

Es cierto que a partir de ahí el gobierno municipal recoge esa enmienda la presupuesta y es ahora en el mes de septiembre cuando nos trae este dictamen.

Lo digo porque en aquel entonces el nacimiento de esto que tenemos hoy aquí lo que pretendía era precisamente fomentar la emancipación de los jóvenes en Zumaia, en unos momentos además de crisis, en estos momentos de salida de la crisis fue con una crisis importante detrás y con un importante precio en el pago de la vivienda y la dificultad de acceso a la misma, ese era el espíritu en origen.

Y todo esto lo comento y lo digo porque a nuestro modo de ver, a mí modo de ver como grupo socialista entendemos que se ha hecho un buen trabajo, entendemos que el dictamen que se presenta podría ser mejorable como no! como lo puede ser todo y al ser la primera vez que se inicia pues se verá el resultado y de ahí se mejorara o se dejara como está, o ya se verá no?

En este sentido, el sentido del voto será favorable pero señalar como ya dijimos en la comisión había algún tema que nos preocupaba por ejemplo el de los 10 años de empadronamiento en el municipio.

A mi modo de ver es un período que resulta excesivo y que pudiera llevar también a cierta confusión, porque como ya señalé en la comisión ciertamente 10 años de empadronamiento como no! resulta excesivo pero se puede dar la circunstancia en contraposición a lo señalado por Oier antes de que un niño nacido en Zumaia y que ha vivido hasta los 9 años aquí, luego se ha trasladado a Azkoitia, Azpeitia, ha continuado su vida allí y ahora puede beneficiarse de las ayudas para venir a vivir a Zumaia con 25 años por ejemplo no? Llevando fuera del municipio más tiempo del que lleva de vida no?

Entonces como todo puede tener su contraposición, no obstante como ya digo a pesar de ello voy a votar a favor porque entiendo que es positivo que se puede beneficiar bastante gente y que en todo caso si no dá los resultados que creemos que puede dar pues ya se mejorará como todo, sin más"



Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV) hitzez hitz:

"nik Arritxu... komentatu duzu, komentatzen zenuen egia esan kurioa iruditu zait komentatzen zenuen programa honen sormena, programa hau jaiotzen dela Bilduk sartutako enmienda baten bitartez, bai?"

Bakarrik argitu nahi nizun ez dela horrela, bai!

Programa hau sortzen da EAJk aurrekontuetan lehenengo aldiz ezartzen duelako partida berri bat, lehen ez zegoena, bai!

Programa hau dator partida horretatik, EAJ-k 2017rako aurrekontuetan sortzen du lehenengo aldiz 20.000€ko partida bat gazteen emantzipazioaren sustapenerako, ondoren da EH Bilduk enmienda bat egiten duela eta proposatzen duela 10.000€ gehiagotan uste dut zela 30.000€ haunditzea bai?"

Aklaratu bakarrik nahi nizun egin."

Arritxu Marañonek (ES-SV) hitzez hitz: " Sí y le apoya el Partido Socialista y el PNV se abstiene.

En la votación de la enmienda si no recuerdo mal, sino el secretario que me corrija o alguien que me corrija, si no creo recordar mal, salió adelante con los votos del Partido Socialista y la abstención final del PNV."

Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV) hitzez hitz:

"Bai, horretan guztiz ados nago, egia esan ez naiz gogoratzen benetan enmienda horren bozka zein izan zen, momentu honetan ez naiz gogoratzen baina bai berriro nahi dut klaratu ez dela enmienda horregatik sortzen programa hau, baizik eta partida berri bat sortu dela, ez? bestela ematen du aurrekontuak ez zuela ezer jasotzen eta ez da egia, lehenengo aurrekontuan sortzen da eta gero proposatzen da 10.000 €ko igoera bat, besterik ez."

Alkateak hitzez hitz:

"Azkenean, nik pixkat Arritxu Iribarrek esandako hitzari erantzuna ematen, ez dakit, nahiko gauza nahasian eman dira, denbora gutxi eman dela, ez dut oso ondo ulertu, guri leporatzen zaigu denbora gutxirekin aurkeztu dela eta gauza horiek denak, nik uste dut prozesua izan dela nahiko zabala eta irailak 14ean bidali zen, deialdia 15ean ez, informazioa bidali zen aurrez, oker ez baldin banago, batzordeak ez du izan forma ofiziala, ez dira izan batzorde informatiboak, izan dira partekatze gaizak eta nik uste dut ezin zaigula ezer leporatu irailan eman duen prozesu gai honek, ez?"

Iruditzen zait hiru bilera eduki ditugula, ez dugu zuen aldetik inongo ekarpenik jaso, idatziz eta gero pixkat atentzioa ere bai deitzen dit gaur arte eta hemen pleno arte akats bat egon daitekeela, ez dakit oso ondo, puntu horretan ez, bigarren mailako odolkidetasun hori kanpoan edo barruan gelditzen den, hona



**Zumaiako Udala**

2017IAKU0005-008-005

plenora ekarri beharrean, ez dakit, azkeneko batzordetik hona konturatu zareten edo ez, baina aurrez esatea bazeneukatela benetan lanerako baldin bazaudete, ez? Eta ez orain plenoan, astirik ez daukagunean, ez?

Eta gero horren inguruan batzordeetan pixkat hitz egin duguna ez?

Zuek ikuspegi zabalago batetik ikusten duzuela programa hau eta areto honetan gauza batzuek markatuta gelditzen dira ez? eta niri behintzat markatuta gelditu zitzaidan, Bilduk esaten zuenean agintzen duen tokian ba... koherentea da ez? eta alderdi horretatik programa hau hemen indarrean dago eta zuek planteatzen duzuen programa hori edo zabaltzearena ba... gainontzeko adin guztietara e.a. ba... Bilduk gobernatzeko duen inongo udalerrietan ez dago indarrean ez?

Zortzi urte eduki dituzue gai honen inguruan lana egiteko eta ez duzue pausorik eman eta pixkat hor baita ere Marikruxek esan duenaren harira ematen du emendakin horretan sortzen dela hemen programa hau ez? Gogoraratzen dizuet aurrekontua lantzen hasi ginenean, guk jarri genuela mahai gainean programa hau eta gero eztabaidatu da diru gehiago jarri behar zela ez? 20.000 izan beharrean 30.000 ez? baina, o sea ematen du 10.000 horiek dakarrela benetakoa balioa ez?

Eta nik uste dut azkenean herritarrak falta hori esan dutela eta 2017an indarrean jartzen baldin bada programa hau zuen abstentzioarekin esan duzuen bezala izango dela Alderdi Jeltzaileak jarri duelako martxan programa hau eta horretarako bakarrik zehazten naiz ez?

Nik uste dut hor azkenean pixkat zure espozizioan puntuetan eta formetan, eta niri... iruditzen zait irekia izan dela modu ireki batean jarri dugula mahai gainean gure programa hori eta gero espirituak lehen bidalitako dokumentu horrekin gauza batzuek findu egin behar izan direla? Bai, esan eta bezala programa hau ez da ezagutzen, o sea ez da... programa hau egiteko ezin izan dugu egin kopy-paste bat beste udalerrietako ordenantza batetik, eta bere lanketa dauka eta parte hartu dute teknikariak, gure linea politikoa edo jaso nahi genuen ildoak islatzeko ordenantza batera eta ordenantza berria egiten denean teknikariak horretarako daude eta... ordenantza berri bat egiten denean inongo oinarri bat edo adibide bat ez daukazunean, bere zailtasunak dauzka eta besterik ez. "

Nerea Eizagirrek (EH BILDU) hitzez hitz:

"Ez nik erantzun, leporatu zaigula batez ere oraintxe esan duzula parrafo bat, lanerako aber ez zeundeten, behintzat gogoratu gainera onartuta batzordean eta dena jaso genuenean 15eko batzordean ez? zegoen parrafo bat eta horregatik zegoen beste ordenantza batetik kopiatutako parrafo bat zen, baina es que kopiatzea ere bai ordenantza hauek eta ordenantza hau da Arrasaten edo dauden diru laguntzen oso antzekoa baina ez du horrek esan nahi eta ez da inongo txarra, berria dena bai dira zenbakiak esan nahi dut gu konturatu ginela eta batzordean ere egon ginela eztabaidatzen, horrekin ez dugu esaten inondik inora medallak eramateko dagoela, baina bestela ez zetorren bat inkoherentea zen erabat, eta datu denak aldrebes zeuden. Hori esan nahi dut argi gelditzeko batzordeetan lanean egon ginela eta positiboki, gero guk geneuzkan puntuak ez zirela ukitzen eta beste gauza bat da politikoki ez ginela



**Zumaia Udala**

2017IAKU0005-008-005

ulertzen, baina batzordeetan behintzat egon gara ordenantza hau fintzen eta uste dut hori horrela dela ez?

Eta gero bakarrik hori, guretzako edo batez ere da PNV-k ekarri zuen, guk partida handitu genuen baina lantzen hasi garenean gaia anbizio kontua, o sea, guk ekarri genuen proposamena eta batik bat gazteentzat bakarrik ez izatea egin genuelako bilera zabalak herrian eta etorri zitzaizkigun jende asko bilera zabaletara justu ziren 36 urtetik gorako jendeak eta

Gero beste gauza bat dela EAJ-k ez duela ikusten eta politikoki ez gaudela ados, baina guk proposatzen badugu gazteentzat aparte egitea da, iruditzen zaigulako benetan gai hau mahai gainean jartzerakoan goazen ahalik eta onena egitea. Gazteak daukaten egoera berean gaur egun Zumaian beste jende asko egon daitekeela eta orduan... behintzat argitzeko ez? guk eskatu badugu hori Zumaian zabaltzea adinena dela, ba... edukitako kontaktuak eta gero eta herritarrekin ere bai egindako bilerak eta gero, behin eta berriz markatu zitzaigulako hori gazteentzat bakarrik ez izateko eta horixe. "

Alkateak hitzez hitz:

Lehen esan dudana, iruditzen zaigu zuek planteatzen duzuen oso gai zera... dela eta batzordeetan nik esan nuen hor irekitzen duzu leiho bat ba... Bilduk gobernatzeko duen inongo udalerrietan ireki ez dena eta EAJ-k ikuspegi hori dauka baina itxura denez Bilduk ere bai, zeren Bilduk gobernatzeko duen tokian eta programa mota hau daukan tokian zera... batzuek ireki dituzte 69tik gora bai! 69tik behera ez! eta bueno... Bilduk hor egin ditu horrelako gauza batzuek baina ez du eman, zuek hemen planteatzen duzuen jauzi hori ez du eman Bilduk gobernatzeko duen beste udalerrietan, orduan guri esatea ikuspegi ezberdina daukazuela EAJ-rekiko, nik uste dut ikuspegi ezberdina daukazuela EAJ-rekiko eta Zumaiatik kanpoko Bildurekiko ere bai.

Zeren gazteentzako programa martxan dagoen udalerrietan Bilduk ez du zabaltzen, zuek esaten duzuen beste kolektibo horien denetan, beraz, zuek Zumaiako Bildu ez dago ados Zumaiako EAJ-rekin eta nik uste dut Zumaiako kanpoko beste udalerrietako Bildurekin ere ez dut uste bat egiten duenik, horixe, besterik ez."

Nerea Eizagirrek (EH BILDU) hitzez hitz:

"Erantzuteko esan nahi dut, o sea nik benetan ere bai politika gainean nola ulertzen dugun, ez dauzkagunean gauza da ez zaudetela ados gure neurri horrekin, baina ez dugu sartuko kanpoko Bildu eta zera...

O sea, hasteko Azpeitin eta beste... lehenengoetako ordenantza egin zena gai honekin izan zen lehenengoetako bat Azpeitiko, Azpeitiko EH Bilduk jarri zuena, beste bat Oñatikoa eta horretara ere zabaldu egin dituzte eta horrela da, hor ere zabaldua dago eta bestela ere esan nahi dut, Beste gauza bat dela ez zaudetela ados, eta ez dugula zabalduko Zumaian? Ba bale..

Baina ez ditugu sartuko guri leporatzen zuek zaudetela kontraesanean esan nahi dut, da mamuak egitea ez?

Ari gara ordenantza honetaz hitz egiten hemen gauden alderdiak Zumaian eta horixe da ez? Bakarrik argitzeko."



Alkateak hitzez hitz:

“ Eta zuk esan duzu batzar honetan behin baino gehiagotan beste... o sea, nahi denean beste udaletako gauzak ekartzen dira eta interesatzen ez denean ez!. Batzorde batean esan nizun edo hitz egiten dugu gainontzeko udalerrietako programetaz eta guztietaz izan dituzten esperientziaz eta guztietaz eta hona ekartzen dugu haien esperientzia baliogarria izateko guretzako edo bestela, o sea... hemen gelditzen gara ez! baino... nik uste dut ez interesatzen zaigunean hangoa hartzen dugu eta ez zaigunean interesatzen ez! eta bueno... besterik ez!”

### ERABAKI ZATIA

**Votos a favor: 7 (6 EAJ-PNV; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 5 ( EH BILDU)**

**ERABAKIA:** 1.- Etxebizitzen alokairurako diru laguntzen ordenantzak behin behineko izaeraz onartu dira.-

2.- Ordenantzaren behin behineko onespeneraren iragarkia GAOn argitaratzea.

-----

### **6- PROPOSAMENA:**

**6.1.- “KATALUINAREKIN BAT, DEMOKRAZIOAREKIN BAT”; EH BILDU UDAL TALDEAREN IZENEAN AURKEZTURIKOA,**

Alex Olidenek (EH BILDU) testua irakurri du:

### **“KATALUINAREKIN BAT, DEMOKRAZIOAREKIN BAT. MOZIOA**

Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari atea irekiz, etorkizuna libreki erabakitze bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.

Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.





**Zumaia Udalak**

2017IAKU0005-008-005

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, Zumaia Udalak honako mozio hau eztatidatu eta onartzen du:

1.- Zumaia Udalak, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.

2.- Zumaia Udalak, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatuz eta arbuaitzen ditu. Madrilgo Gobernua, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.

3.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen dugu.

4.- Zumaia Udalak, Euskal Herria, katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.

5.- Zumaia Udalak urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuako presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri-

6.- Urriaren bateko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udaltzak, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesa adierazi asmoz...

Guk hemen aurkeztutako mozioaren inguruan aldeko bozka emango dugu eta besterik ez, ez daukagu beste ezer esateko honen inguruan Besterik gabe bozkatuzera pasako gara.

### **ERABAKI ZATIA**

**Votos a favor: 11 (6 EAJ-PNV; 5 EH BILDU )**

**Votos en contra: 1 (ES-SV )**

**Abstenciones: 0**

**ERABAKIA:** "Kataluinarekin bat, demokrazioarekin bat"; EH-Bildu udal taldearen izenean aurkezturiko proposamena onartu da.-

Arritxu MaraÑonek (ES-SV) hitzez hitz:

"En este municipio ayuntamiento de Zumaia,



Los acontecimientos que se acumulan en los últimos días y que nadie dice querer y de los que nadie quiere responsabilizarse nos obligan a una reflexión colectiva a la que los socialistas queremos contribuir.

La relación entre Cataluña y el resto de España es una cuestión no resulta desde el año 2010 cuando el Tribunal Constitucional alteró el estatut votado por los catalanes en el año 2006.

La actitud temeraria del PP contribuyó de forma decisiva a dinamitar un acuerdo razonable.

Los gobiernos de Cataluña y España desde entonces han sido incapaces de establecer un dialogo serio para encarrilar esta cuestión.

El gobierno catalán y la mayoría independentista que le da apoyo han optado por una vía unilateral e ilegal. Es necesario recordar que aquí se han vulnerado ya y por este orden el reglamento del parlament; los derechos de la oposición; el estatut de Cataluña y la Constitución española.

Esta vía unilateral e ilegal está condenada al fracaso y comporta la actuación de los poderes del Estado para evitar la celebración de un referendun que está considerado ilegal por los Letrados del Parlament de Catalunya; el Consell de Garanties Estatutaries de Catalunya; El Tribunal Constitucional y la Comisión de venecia del Consejo de Europa.

Los socialistas siempre hemos alertado contra el choque de trenes que otros minimizaban y hemos defendido siempre otro camino el camino del diálogo, la negociación y el pacto.

Desgraciadamente nuestro planteamiento no ha sido atendido y el choque de trenes del que advertíamos ha llegado.

El dialogo político es la única vía que puede permitir salir de este callejón sin salida para el que Cataluña gane en autogobierno y financiación y para que España se transforme en un estado federal.

El pacto que proponemos debería de culminar en una reforma Constitucional que fuera sometida al voto de la ciudadanía.

Los socialistas lo hemos recogido en la declaración de Barcelona para el conocimiento de quien lo desee, además hemos impulsado en el Congreso de los Diputados la creación de una comisión parlamentaria para abordar todas estas cuestiones.

En estos momentos llamamos a los gobiernos de Cataluña y España a detener una escalada que nos lleva a todos al desastre. La solución al problema de la relación entre Cataluña y el resto de España no vendrá de la mano de los Tribunales, pero el respeto a la legalidad sí nos obliga a todos.

La determinación del Estado de impedir la celebración de un referéndun ilegal no puede implicar en ningún caso limitar el debate político y los derechos que la propia Constitución consagra.

Es por todo ello, que pedimos al gobierno de Cataluña que renuncie a la organización de este referéndun y que esta renuncia haga posible la apertura inmediata de un proceso de diálogo y negociación al que están convocadas todas las fuerzas políticas, catalanas y españolas.

Pedimos al gobierno de España que dé una respuesta política a un problema político y que no pretenda que la única respuesta del Estado a este problema político la dé el poder Judicial.

Los presidentes Puigdemont y Rajoy deben de hacer hoy lo que hace meses deberían haber hecho, hablar.



**Zumaia Udala**

2017IAKU0005-008-005

Los socialistas estamos comprometidos a contribuir a encontrar una solución democrática y acordada a los problemas planteados y queremos emplazar a todas las instituciones y partidos a hacer contribuciones positivas en esta dirección.

Llamamos a la serenidad y a la calma precisamente hoy, a escasos tres días del mismo.

Las instituciones democráticas tienen la obligación de encontrar una salida al conflicto abierto que vivimos y no deben de trasladar a la ciudadanía la solución del problema.

Los catalanes y catalanas tienen garantizado sus derechos y Cataluña como país su autonomía, su empeinamiento en una vía unilateral e ilegal puede ponerlos en peligro.

Llamamos a la responsabilidad de los gobiernos tanto de Cataluña como de España para iniciar de forma inmediata el diálogo, la única vía, reiteramos de solución.

Y por último y esto lo considero importante teniendo en cuenta que estamos en un municipio como Zumaia en el que además hemos solido condenar determinar pintadas y determinadas cuestiones no hace mucho tiempo, mostramos nuestra solidaridad también con todos los cargos públicos como los más de 120 alcaldes y alcaldesas del PSC, Partido Socialista de Cataluña, que también están defendiendo la legalidad en Cataluña y tienen mayorías ciudadanas les han votado también los ciudadanos y se niegan a ceder ante coacciones, insultos y chantajes como también hemos podido ver a lo largo de estos días.

Sin más acabar, que nos situamos en la línea del Lehendakari Urkullu y no en la línea de la moción que se ha aprobado hoy aquí en el ayuntamiento de Zumaia,  
Gracias,"

-----

#### **7.- NEREA EIZAGIRRE, EH-BILDUKO ZINEGOTZIAREN ERRENUNTZIAREN BERRI EMATEA.-**

Nerea Eizagirrek (EH BILDU): "Ez dakit zer esaten den holakoetan, baina horixe, eskerrak eman Zumaiarrei eta Zumaia udaleko bai ordezkari eta langile guztiei, ez? hemendik aurrera ezingo dut bizitzan lan profesionala eta horregatik eta Zumaiaren alde lanean jarraituko dugula denok, ez? eta animo! Horixe"

Alkateak: Pena bat Nerea uzteak, Pozten gara hemen ezagutu izana hemen udaletxean eta Zumaiarrek izanik biok igual edadearen aldeetatik igual ez ginen ezagutzen o lo que sea, plazer bat ezagutzea eta hemendik aurrera ezagutzen gara eta kalean ere elkar ikusiko gara,

Eskerrik asko, batzorde berdinean egon gara zu eta ni, ezagutu gara pixkat gehiago eta lanerako disposizioa azaldu duzula denbora guztian eta positiboa izan dela Zumaiarako eta udal ekimenerako, ez?

Eskerrik asko,



Arritxu Marañonek (ES-SV):

Bueno Nerea, pena bat da, egia da, es una pena, te lo he dicho también antes de comenzar este pleno.

Desearte toda la suerte del mundo y lo mejor en el trabajo por el cual dejas este ayuntamiento, pero sí señalar y yo creo que es importante que por lo menos a modo de ver de este grupo pues el trabajo que has desempeñado como concejala de Zumaia en estos dos años ha sido realmente yo creo que positivo y que de alguna manera pues Zumaia pierde una buena concejala y nada por lo demás para lo que haga falta en cualquier caso tienes a este grupo en la medida de las posibilidades eta zorte on"

-----

**8.- ESKARI – GALDERAK.-**

Eskerrik asko denoi eta hurrengo arte

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak hamar gutxi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria